

EMAKUMEEN GURKAKO INDARKERIA LEIOAKO AURKAKO LEIOAKO AKORDIOA

EZETZ EZETZ DA!

Emakumeen aurkako indarkeria Leioako herritarrok onartu ezin dugun giza eskubideen urraketa da. Badakigu urte guztian haren aurka lan egiteak garrantzia handia duela, baina jaietan, bereziki, guztiz inplikatzeko konpromisoa hartuko dugu.

Jai guztietan eraso matxista fisiko eta ahozkoak izaten dira urtez urte, eta hori onartezina da. Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko jaiak nahi ditugu, eta hori lortzeko, edozein jokabide matxistaren aurrean emango dugun erantzun kolektiboarekin bat egin dugu, beste urte batez.

GURE USTEZ:

Emakume eta gizonen arteko desberdinkeria eraikuntza sozial bat da, eta, hortaz, deuseztatu egin dezakegu. Emakumeen aurkako indarkeria desberdinkeria horren muturreko adierazpena da, eta gizarte osoaren ardura da hari erantzun sendoa eta irmoa ematea.

HORREGATIK, KONPROMISO HAU HARTU DUGU:


Eraso matxisten kontra jardungo dugu gure kuadrillan, gure inguruan, tabernan eta txosnan; jaien etenaldiarekin bat egingo dugu; eta deitzen diren protestetaldietan parte hartuko dugu.

GURE USTEZ:

Emakumeek, bai helduek eta bai neskek, jaietz aske eta seguru gozatzeko eskubidea dute. Ondo pasatzeko eskubidea dute, erasoren bat eragotziak izan gabe, jasateko beldurrik izan gabe, gaua eta kaleak emakumeenak ere badira.

HORREGATIK, KONPROMISO HAU HARTU DUGU:

Indarkeriarik gabeko jaien aldeko sentsibilizazio kanpaina parte hartuko dugu, eta lan egingo dugu gure instalazio eta guneak emakumeentzako leku seguruak izan daitezten. Horretarako, sexu-eraso eta eraso sexisten aurka jarduteko eskuliburak diogenari jarraituko diogu.



GURE USTEZ:

Matxistek eta erasotzaileek ez dute lekurik, ez jaietan, ez gure lagunartean.

HORREGATIK, KONPROMISO HAU HARTU DUGU:

Ez diegu konplizitaterik ez babesik erakutsiko indarkeria sexista justifikatu edo babesten dutenei, lekuz kanpoko komentarioak edo broma matxistak egiten dituztenean, begirada lizunez begiratzen dutenean, etab.

GURE USTEZ:

Emakumeak euren buruaren jabe dira, eta eskubidea dute erasoan aurrean euren burua defendatzeko.

HORREGATIK, KONPROMISO HAU HARTU DUGU:

Ez diegu garrantzirik kenduko jokabide matxistei, eta emakumeei ez diegu esango halakoei garrantzia kentzeko jai-giroan gaudela aitzakia hartuta. Indarkeria matxista jasaten dutenek dakite ondoen zein jarrera diren onargarriak eta zeintzuk ez.

AGIRIA NORA ERAMAN:

Kultur Leioa
Gizarte Zerbitzuetan

Izen- abizenak:.....
Erakundearen izena:.....

NAN/IFZ:.....

Sinadura:.....